

laister berri



Beasaino udala

165 OTSAILA 2007

001

AURKEZPENA

002

SAN MATIN

ECUMA

003

BEASAINCO

MAPA

004

HAUR

ZINEA

005

LOIMATZ

JAIK

006

AMTZERKI GARAI

007

GOIENIZ

010

EKINTZAK

laister berri

SAN MARTIN EGUNA ERRETIRATUEN ETXEA

JAIAREN EGITARAUA

12:30ean: LUNCHa, bazkideentzat

17:00etan: Dorotea Goiburu Mugica andreaki eta Martin Elvira Fernandez jaunari harrera emango diegu lagunarteko omenaldia eskaintzeko asmoz.

Omenaldian parte hartuko dute:

* ALRTZAKA EUSKAL DANTZA TALDEAK.

* GUREA ABESBATAK.

* BERTAN EGONGO DIREN BAZKIDE GUZTIEK.

* PATXI PLAZAOLA ALKATE JAUNAK ETA MALU VALLES GIZARTE ONGIZATEKO BATZORDEBURUAK.

Segidan, eta 21:00ak arte, DANTZALDIA

ANTOLATZAILEA: ERRETIRATUEN ETXEA.
LAGUNTZAILEA: BEASAINGO UDALA.

OHARRA: LUNCHean parte hartzeko 2007ko kuota ordainduta izatea beharrezkoa da.



laister berri

Diseinua:

ah_comunicación

Maketazioa:

ah_comunicación

Erredakzioa:

ah_comunicación

Publizitatea:

ah_comunicación

Imprimaketa:

Gráficas

San Martín C.B.

Lege Gordailua:

SS-654/96

Erredakzioa

helbidea:

Martina

Maiz 3/2.

bulegoa

T 943 882 257

F 943 027 639

E ah@clidkah.com

Beasaingo Kultura Batzordeak aldizkari honen 6.500 ale banatzen ditu hilabetero Beasaingo postontzietan.

Eragilea:

kultura saila



Beasaingo udala

laister berri

SAN MARTIN EGUNA

2008ko Otsailak 5



9:30ean:

Udal Txistulari Bandaren eta Musika Eskolako Bandaren goiz erezia Beasaingo kaleetatik zehar.

9:30ean:

Kofradien harrera, bilkura eta ongietorria ahogozagarriekin.

10:30ean:

XXIII. Odolki kofradiaren biltzarra. Kofradien ibilaldia galako jantzita, txistulari dantzari eta poxpolinek lagunduta, San Martinen estatuara iritsi eta lore eskeintza egingo diote. Ondoren ohorezko aurrekua dantzatuko da.

11:00etan:

Meza Nagusia, Andre Mari Zeruratuaren Paroki Elizan.

12:00etan:

Kofradiaren XXIII. Kapituluaren Ospakizuna eta Ohorezko Kofradiakideen izendapena Loinazko San Martin plazan

12:00etan:

Odolki dastaketa Zubimuzu plazan. Arduradunak: Aurtzaka Dantza Taldea

14:30ean:

Senidetasun bazkaria Olaberriko Castillo jatetxean.

18:00etatik 21:00etara

"BENTAZ AHARREKO MUTIKO ALAIK" taldeak herriko kaleak girotuko ditu.

laister berri

BEASAINGO MAPA TOPONIMIKOA



Udalerri osoko toponimia izenak jasotzen dituen lehenengo mapa egin du Udalak. Toponimiak toki-izenak aztertu eta zehazten ditu eta Beasaingo udalerriko toki-izenak, toponimoak alegia (mendienak, errekenak, baserrienak, ...), aztertu eta horiek mapa batean kokatu dira, kasu honetan 1/10.000 eskala erabiliz.

Neurri Ingenieros SL enpresari agindu zion mapa egiteko Beasaingo Udalak eta belaunaldiz belaunaldi jasotako aberastasun hori mapan sartzen saiatu dira. Kontuan hartu behar da toponimoak galtzen joan daitezkeela baldin eta ez badira erabiltzen, hori dela eta, udal honek garrantzizkotzat jotzen du, bestalde, kale edo etxe berriak egiterakoan herrian lehengo izenak eta hitzak erabiltzea.

Aipatutako mapak, leku-izenak jasotzen ditu alde batean eta beste aldean, berriz, airetik aterako ortoargazkia.

laister berri

HAUR ZINEA

THE HORROR BUS

Otsailak 2, larunbata, 17:00etan



Onnoval berezi samarra da eta mehatratuta sentitzen da eskolan. Baina ez zaio batere axola, bere neska laguna Liselore berarekin baitauka! Onnovalek Liselore eta Gino muxukatzen ikusten dituenean "The horror bus" istorio beldurgarria idazten du. Ferluick istorioa lapurtzen dio, eta idatzi izanaz damutzen da: istorioa pixkanaka egi bihurtzen ari da...

IRABAZLE & CALTZAILE

Otsailak 16, larunbata, 17:00etan



Frederik hamar urte dituen Magdaren aita da. Tipo dibertigarria eta jockey saiatua da, eta bere ametsetako zaldia aurkitu du azkenean. Zaldi horrek, ordea, ez du irabazteko gogorik. Frederikek gero eta denbora gehiago eskainiko dio zaldia, eta gero eta gutxiago alabari. Magdak Helena ezagutuko du eta aitari bizitza, maitasuna eta aitatasuna zer diren erakutsiko dio.

DONKEY KOTEA

Otsailak 9, larunbata, 17:00etan



Eta On Kixoteren istorioa betidanik entzun dugun bezalakoa ez balitz? Bada garaia Ruciok Gaztela osoko asto abenturazale, baldar eta adoretseuak, benetako istorioa kontatu dezan. Ilargi Erdiaren Zaldunak On Kixoteri Bartzelonan erronka jo dio. Zailena Rocinante zaldia konbentzitzea izango da. Beraien helmugara heltzea lortuko al dute Ruciok eta Rocinanteak?

PICCOLO & SAKO

Otsailak 23, larunbata, 17:00etan



Den-dena gaizki dabil Musika planetan. Guztia Sol, Fa eta Do giltzen desagerpen misteriotsuarekin hasi zen, eta familia bakoitzak beste familiei botatzen die errua. Bi instrumentu, Piccolo eta Saxo, eta Do nota musikalak giltzen bila joatea erabakitzen dute. Aurkituko dituztela pentsatzen dute eta haiekin batera benetako musika bueltatuko dela Musika planetara.

laister berri

2008ko LOINATZ JAIETAKO KARTELA AUKERATZEKO LEHIAKETA

Beasaingo Udaleko Kultura batzordeak lehiaketa antolatu du 2008ko Loinatz jaietarako kartela aukeratzeko. Ondoren zehazten ditugu lehiaketa hori arautuko duten oinarriak.

ONARRIAK

- 1.- Lehiaketa horretan edozeinek har dezake parte, inolako mugarik gabe.
- 2.- Edozein kolore edo eratako lanak onartuko dira: collagea, pintura, eta abar. Lanen neurriak honako hauek izan behar dute: 42x 60 cm. edo horren proportzioko tamaina.
- 3.- Lehiaketarako gaia Beasaingo Loinatz jaiak izango da, eta lanetan "Beasain, 2008ko LOINATZ JAIAK. Maiatzaren 2tik 11ra" azaldu beharko du idatzita.
- 4.- Lanak inoiz argitaratu gabeak izan behar dute.
- 5.- Epaimahaiak 370 €-ko sari bakarra emango du.
- 6.- Saria eman gabe gera daiteke epaimahaiaren iritziz aurkeztutako lanek gutxieneko kalitate-mailarik ez badute.
- 7.- Lanak Beasaingo Udaletxe honetako herritarrentzako Herrera Bulegoan aurkeztu beharko dira, 2008ko martxoaren 7ko eguerdiko 13:00ak baino lehen.
- 8.- Lanak egilea nor den adieraz dezakeen inolako daturik agertu gabe aurkeztuko dira. Lanarekin batera, kartazal itxi batean parte-hartzailearen datu pertsonalak eta NAren fotokopia bidali behar dira.
- 9.- Epaimahaiak 2008ko martxoaren 18a baino lehen emango du bere erabakia eta bera apelaezina izango da.
- 10.- Loinatz jaietako antolatzaileek aurkeztutako kartelek erakusketa bat antolatu ahal izango dute jaien barruan. Horregatik saritu gabeko lanak, maiatzaren 12tik zenbatzen hasita, hogeit eguneko epean jaso ahal izango dira lanak aurkeztutako leku berean. Aipatutako epea lanak jaso gabe igaroz gero, egileak galdutzat eman dituela pentsatuko du Udalak, eta, ondorioz, inolako eskubide eta kalte-ordainik aitortu gabe, egoki irizten dion moduan bereganatuko ditu.
- 11.- Saritutako lana Udalaren esku geldituko da eta, argitaratzeko, ezagutarazteko eta abarretarako eskubide guztiak berak izango ditu.
- 12.- Udalak aurkeztutako lanak zainduko ditu baina lanen osotasunaren eta egoera onaren erantzukizunik ez du izango, batez ere euskarri gogorrean aurkeztu ez diren lanena.
- 13.- Lehiaketara aurkezte soilak, oinarriak goitik behera onartzea dakar.

laister berri

ANTZERKI GARAIA

TE ACUERDAS ABUELA?

Otsailak 8, ostirala, 22:15ean



Seinaleak nabarmenak dira: azken aldian amona nahasia dabil, askotan gauzak galtzen ditu, bere jarrera bitxia bilakatzen ari da oso. Medikuek erabateko diagnostikoa egiten du: Alzheimerren gaixotasuna. Alabaren etxera doa bizitzera, denon artean oroimenak berriaz osatzen saiatuko dira, tragediak ez dezan dena ahaztera eraman.

Familia osoarentzako kronika, beroa eta haldia, umore eta maitasunez landutako gai garrantza.

EZKER-ESKUMA

Otsailak 29, ostirala, 22:15ean



Bi emakume, bakoitza bere etxean, bere arazoekin borrokan... Kontu bakar batek elkartzen ditu, biak solairu berean bizi direla, ezker-eskuma. Rosak bere sukaldea etajanaria beste hizpiderik ez du. Senar isil eta anonimoa dauka. Sara berriz bakoitza bizi den emakumea da, etxetik kanpo lan aspergarri bat duena. Interneten sartzea beste denborapasarik ez duena. Bakoitzak badaki zer duen ispiluaren beste aldean, eta hala ere aurrera egiteko gai eta gauza dira, beren umore, haserre eta laguntasunarekin.

laister berri

GOIENIZ

PERSEPOLIS



Otsailak 7,
osteguna.
Zuzendariak:
Marjane Satrapi
Vincent Paronnaud

Satrapi 1969an, Iraneko gizarte maila altu eta ideologia aurrerakoiko familian jaio zen. Nera-bezaroan jarrera martinoa hartu eta Irango erregimenak harturiko erabakien aurka jo zuen. Hala erregimen islamiarak debekaturiko musika taldeak entzuten zituen, arazoetan sarturik, Gurasoek Wenara bidali zuten 1984tik-1989ra arte. Ikasketak amaitzean Iranera itzuli zen Arte Ederrak ikastera, baina emakumeek zuten diskriminazioa ikusirik, frantziara joango da.

LOS CLIMAS



Otsailak 14,
osteguna.
Zuzendaria:
Nuri Bilge Ceylan.

Bahar eta Isa bikotea oporrak hondartzan ari dira pasatzen, baina biek badakite laster banandu egingo direla. Hirira itzultzen direnean, haustea akats handia izango dela pentsatuko du Baharrek, eta emaztearen bila hasiko da. Filmea 2004 eta 2005 artean grabatu zen Turkian: Kas (hegoaldean), Istanbul, eta hainbat mendi paisaiatan, hala nola: Agiri; Dougbeyazit eta Erzurum.

HOTEL TIVOLI



Otsailak 28,
osteguna.
Zuzendaria:
Anton Reixa

Zuzendariak dionez, txiskeroa munduko objeturik promiskuena da. Izan ere, "Babel" filmean rifle bat eskutik eskura aldatzen den moduan, "Hotel Tivoli"n ere txiskero baten ibilbideari jarraituko zaio munduan zehar, istorio desberdinak lotuz. Kokapen eta egoera aniztasun honek produkzio lan izugarria eskatu zuen: 40 aktore 7 hizkuntzatan hizketan jartzea, munduko 10 lekutan sakabanatuta, halabeharrak gidatutako istorio korapilatsua osatzeko.